


Andoaingo Ziako errekan, uholdeei aurre egin eta saneamendua hobetzeko proiektua

Gaur egun, Oriara behar bezala tratatu gabeko isurketa nabarmenena bildu, eta Oria Erdiko saneamendu-sarera bideratzeko obrak dira; baita erreken uholde-arriskua nabarmen murrizteko ere. Ziako erreken ibilgua aire zabalera aterata ahal izateko, ezinbestekoa da alde aurretik saneamendu-obrei ekitea eta sare berria zerbitzuan jartzea.

1. Saneamendu-lanak


URAK gaur egun tratamendu egokirik gabe zuzenean Ziakora eta Oriara isurtzen diren hondakin-urak biltzeko proiektua gauzatu nahi du.



- Luzeera:** Kolektore nagusia: 1960m; bigarren kolektoreak (euri- eta hondakin-urak): 2.890m. Guztira: 4.850m
- Aurrekontua:** 10.129.214,33 euro BEZa barne*.
- Egikaritze-epea:** 20 hilabete.
- Diametroa eta material aldakorra izango duen sare berri bat eraikiko da tartearen arabera: **315 eta 1500 mm** artekoa; PVC, hormigoi armatu eta beira-zuntzez indartutako poliesterezkoa (gaztelarazko PRFV-a).
- Instalazioaren gehieneko sakonera:** 5,60 m/batez bestekoa: 3,50-4,00m.
- Hiri- eta industria-isurketak Oria erdialdeko hodi-biltzailera konektatuko dira.
- Hasierako proiektua handitu egin da, eta goiko auzoetatik (Plazaola, Aranzibia) datozen isurketa bereizirik gehitu dira.

2. Uholdeei aurre egiteko lanak

Andoaingo hiri-eremuan egungo estaldura kentzea (Berrozpe eta Ama Kandida etorbidean) eta haren trazadura aldatzea aurreikusten da. Ahal den neurrian Ama Kandida etorbidetik igaroko den aire zabaleko irtenbidea aukeratu da. Bere dimentsioa dela eta, proiektua 3 fasetan banatu da.



- 1 Fasea:** Martin Ugalde Kultur Parkearen parean hasten da, Denac poligonoaren hasieraraino.
- Aurrekontua:** 11.113.089,45€koa BEZa barne.
- Epea:** 12 hilabete.
- 3 faseen aurrekontu osoa:** 36.295.621,95 € BEZa barne.
- 3 Fasea:** Tarteko fasea: 1. fasea eta 2. fasea lotzen ditu, eta Ama Kandida etorbidetik igarotzen da.
- Aurrekontua:** 10.017.386,47€ BEZa barne.
- Epea:** 13 hilabete.
- 2 Fasea:** Ama Kandida-Bazkardoren amaieratik, N1a lurperatuta gurutzatzen du; Calonge inguruan irteten da, eta Oriarekin bat egiten du central zaharraren parean.
- Aurrekontua:** 15.165.146,03€ BEZa barne.
- Epea:** 14 hilabete.

*2023 lizitatu beharreko proiektuak saneamendu-proiektu osoa eta uholdeen aurre egiteko defentsa-proiektuaren 1. fasea hartuko ditu kontuan.